

Ordizian, 2011ko abenduaren 19an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, EZ-OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Iñaki Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

Jose Ignacio Iturrioz jauna 1. puntuan sartu da bilkurara, 4. puntua bozkatu eta gero.

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea


**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**



## EGUNEKO GAIAK

### EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-GOIEKI-ko ordezkarien izendapena aldatzea.  
.....3.orr.
- 2.- 2012 ekitaldirako Tasei eta Zergei alegazioak. Behin betiko onarpena.  
.....6.orr.
- 3.-2011ko LPZ eta Plantilla Organikoa aldatzea.  
.....8.orr.
- 4.- Eguneko Zentroko Barne Erregimenaren Araudia Aldatzea.(Beste puntuen aurretik aztertu da)  
.....3.orr.

### PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

#### GORABEHERAK

#### GALDE-ESKEAK


- .- 4000 agindua
- .- Kaleko hondakinak.
- .- Eguneko Zentroko plaza pribatuak.  
.....15.orr.

#### ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 18,10ak.

AMAIERA ORDUA: 19,00ak.





Alkate jn.

Batzarra hasia aurretik azaldu du ez dela aurreko Osoko Bilkurako akta onartzeko bidali, denborarik izan ez delako.

Maiza and.

Azaldu du gai-zerrendatik 4. puntua ateratzea proposatuko duela (Eguneko Zentroko barne Erregimenaren Araudia aldatzea).

Jarraian Eguneko gai-zerrendako puntuak irakurri eta eztabaidatuko dira. Lehenik 4. puntua aipatuko da.

#### **4.- Eguneko Zentroko Barne Erregimenaren Araudia Aldatzea.**

Hurrengo osoko bilkurarako mahai gainean uztea proposatu da.

##### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 1., PSE-EE(PSOE) 4)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz, gaia hurrengo osoko bilkurara atzeratzea erabaki da.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio:


#### **1.-GOIEKI-ko ordezkarien izendapena aldatzea.**

##### Proposamena

2011ko azaroaren 24ko osoko bilkuran hartutako hitzarmenaren berri ematen da. Bertan adostu zen Goieki S.A.-an udaleko ordezkariak izendatzea, eta IGOR EGUREN IZAGIRRE eta JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA izendatu dira.

Azaroaren 12ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, berriz ere, izendapen proposamena egitea erabaki zuen, eta Igor Eguren Izagirre eta Belen Maiza Urrestarazu izendatu zituen.

Horiek horrela, honako akordio-proiektu hau onartzea proposatu da,



## AKORDIO PROIEKTUA

.- 2011ko azaroaren 24ko osoko bilkuraren akordioa indargabetzea, Goieki S.A.-n Udaleko ordezkari Igor Eguren Izagirre eta Jose Miguel Santamaría Ezeiza izendatzen dituenak.

.- Goiekin Udaleko ordezkari IGOR EGUREN IZAGIRRE eta BELEN MAIZA URRESTARAZU izendatzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Asenjo jn.

Onartutako proposamena zergatik aldatu den azaltzen du.

BILDUri Goieki S.A.-n 6 ordezkari dagozkiola adierazi du.

EAJren eskariari erantzunez -Goekiren espiritua dela alderdi politiko guztiak ordezkatuta egon daitezen-, EAJko ordezkari bat, Santamaria jn. eta BILDUKo ordezkari bat, Eguren jn. izendatu ziren.

EAJk ez du akordioa errespetatu eta BILDUri 6 ordezkari dagozkionez, Ordiziako ordezkariak BILDU taldekoak izan daitezela proposatu da, Eguren jn. eta Maiza andrea.

#### Santamaria jna.

Esan du argi dagoela BILDUK ez duela alderdi guztiekin hitz egin.

Adierazi du 6 hilabete luze igaro direla eta ez dakiela zertarako.

Zertan ibili dira maiatzetik hona?


Goiekiren presioak izan al dira Batzordea eratzea ekarri dutenak.

Esan du harritu egin zirela osoko bilkura astebete atzeratu zenean, proposamen bera aurkeztu baitzen eta osoko bilkura hasi baino ordu eta erdi lehenago jakin zutela horren berri, Goiekik bidalitako mezu baten bitartez.

Horri utzikeria deitzen zaio. Ez diote gaiari daukan garrantzia ematen.

Besteik, alderdiren arduragabekeria azpimarratu behar da, gehiengo osoa izanik bi ordezkari besterik ez dituen beste bati leporatzen baitio errua.

Azpimarratu du Beasainen, aukerak izanda pluraltasunari ateak zabaldu dizkiotela, eta lekukoa beste talde batzuei pasa dietela, hain zuzen ere BILDUK egin ez duena.



Ordizian, BILDUK gehiengo osoa du eta halaxe egingo dute.

Beasainen gehiengoekin jokatzeko aukera ere izan da, baina pluraltasunari zabaldu zaizkio ateak, PSEE, H1, PP eta PNVk lagatako pluraltasuna, Bilkuran guztirako 17tatik, 10 zinegotzi guztira.

Beti BILDUK duen gehiengo osoa onartuta, alderdi politiko guztien presentzia defendatu dutela.

Hori al da beraien demokrazia? Ez al zetozen politika berriak egiteko asmoz?

Osoko bilkura honetan ikusi ahal izan dena vendetta hutsa da, mendekua.

EAJ kanpoan utziko dute.

#### Asenjo jn.

Adierazi du ekainaren 30eko bilkuran berak defendatu zuela Ordiziari bi ordezkari dagozkiola, eta Udalbatzako osoko bilkurarena zela izendapenen eskuduntza, eta gero, lortutako akordioen arabera aldaketak egin behar izango balira, orduan aldaketa horiek egingo liratekeela.

Esan du beti eman izan duela hitza, ahalik eta ordezkaritza zabalena mantenduko zutela.

Uste du bere taldeak beti mantendu izan duela berdina.

Adierazi du EAJk Hamaikabat eta PPrekin harremanak izan dituela, baina ez dela egon Aralarrekin.

#### Santamaria jna.

Goiekitik baztertu zaiela dio.

#### Asenjo jn.

Erantzun dio beraiek direla Beasainen baztertu direnak eta akordioa atzera bota dutenak.


#### Alkate jn.

EAJri esan dio eskua luzatu diola Goiekin lan egiteko, eta EAJren Estatutuen aurka, mantendu duela ordezkaritza D'hondt Legean oinarritutakoa izan dadila.

Adierazi du noski nahi duela gehiengoa Goiekin, baina alderdi politiko guztiak ordezkatuta egon daitezen ere nahi duela.

Espiritua ondo dagoela dio, baina hori erortzen denean...

Gaia birbideratzeko gai izango direla ziur dago, eta denak, bazterketarik gabe, ordezkatuta egon daitezen aukera ematen du.



Sasietako mankomunitatean, BILDUko BILDUko Alkatea eta EAJko Aitor Aldasoro proposatu zituenean, azken hau Koldo Agirre kentzen saiatu zen, Alkatea, horren partez Hamaikabateko ordezkari bat jartzeko.

Larriena da EAJk BILDUri dagokion ordezkari bat kendu nahi duela.

Goiekin EAJ ere egon dadin espero du.

Santamaria jna.

Beti sinetsi izan dio BILDUri alderdi guztien ordezkari izango zuela esan izan duenean, eta baita sindikatuak ere, baina ez da horrela izan.

Alkate jn.

Gaia amaitu gabe dagoela esan du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du:

## **2.- 2012 ekitaldirako Tasei eta Zergei alegazioak. Behin betiko onarpena.**


Proposamena

2011ko urriaren 13ko behin behineko akordioaren azalpen publikoa egiteko epean, nahiko erreklamazio jaso dira OHZn familia ugarietako hobariak gozatzeko baldintzak aldatzeko proposamenaren kontra.

Gobernu taldeak begi onez ikusi du denbora gehiago hartzea bere jarrera definitzeko eta bitartean, aurreko baldintzak mantentzearen alde azaldu da.

Bestalde, auto-konpostajearen parte hartzen duten pertsonen zakarren tasan hobariak aplikatzeko eskari bat ere jaso da. Eskaera hori hurrengo ekitaldian ukatzea erabaki da.

Aurrekoa ikusita eta gaia abenduaren 12ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean landu eta gero, Osoko bilkurak hau erabaki du,



## AKORDIO PROIEKTUA

1.- OHZn familia ugaria izateagatik hobariaz gozatu ahal izateko baldintza berrien aurkako erreklamazioak kontuan hartzea eta 2011n indarrean zeuden baldintzak mantentzea.

2.- Auto-konpostajea egiteagatik zakarraren tasan hobaria izateko aurkeztutako alegazioa ukatzea.

3.- Akordio hori GAOn publikatzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Familia ugarien OHZren eskaera edo alegazioak kontuan izango direla azaldu du (nahiko eskari egon dira) eta baloratuko dela.

ZABOR ZEROrri dagokionez (autokonposta) eskualde mailan landu nahi dute gaia, eta gainera, gaia asmo handiagoarekin landu behar duela uste du.

Aztertuko da. Aurten ez da alegazio hori balioetsiko.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako akta onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:



### **3.-2011ko LPZ eta Plantilla Organikoa aldatzea.**

#### Proposamena

2011ko martxoaren 25eko osoko bilkuran 2011 ekitaldiko Udaleko Lanpostu Zerrenda eta Plantilla Organikoa onartu zen.

Tokiko Araubidean indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 126 artikulua eta ondorengoak kontuan izanda.

Toki Araubidearen oinarri orokorrak arautzen dituen Legearen 22.2i) artikulua zehazten du Langileen Plantilla, Lanpostuen Zerrenda eta horien aldaketa onartzea osoko bilkuraren eskumenekoa dela.

Ordiziako Udaleko lanpostu guztien deskripzioa, balorazioa, 2010 urte amaieran egindakoa eta 2011ko maiatzaren 16ko osoko bilkuran onartutakoa, Euskara Teknikari lanpostu berria sortzeko beharra jasotzen duena.

Tokiko Gobernu Batzordean, 2011ko azaroaren 14koan, jakinarazi da LPZn hutsik dauden lanpostuen artean, Euskara Teknikari lanpostuak lehentasuna duela, Saileko langileen egoera dela eta eta aurreko legealdiaren hasieran egin zen eskaera bat dela kontuan izanda.

2012 ekitaldiko aurrekontuetan lanpostu horretarako beharrezko aurrekontu partidak jasoko dira, eta abenduaren 12ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen oniritziarekin, honako hau proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

\* 2011ko ekitaldirako Udaleko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa aldatzea. Aldaketa horrek ekarriko du "Euskara teknikari" lanpostua sortzea funtzionario gisa, A1 mailakoa, 21 lanpostu-mailako osagarria, osagarri espezifikoak 836,99 puntu kopurua, lehiaketa- oposizio librez hornituko dena, eta gainontzeko baldintzak atxikitzen den Eranskinean dira.

\* Euskal Funtzio Publikoko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 16. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 127. artikulua arabera GAOn argitaratzea honako akordioa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.


#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:





Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



### **5.- Eskaerak eta galderak**

.- Dubreuil jaunak adierazi du Ordizia Eginez aldizkarian Udalaren Enplegu Plana aipatzen dela, eta bertan 4000 Agindua aplikazioari egiten zaiola erreferentzia.

Alkateak erantzun dio enplegu-planarekin 4000 Agindua adierazten dela bakarrik.

.....

.- Kaleko hondakinak: Dubreuil jaunak galdetu du ea BILDUK Ordizian atez ateko bilketa gauzatu eta ezartzeko asmoa ote duen.

Alkate jaunak erantzun dio oraingoz ezetz, baina etorkizunean, eta denbora gehiagorekin, zehatzago aztertu nahi duela gaia.

.....

Dubreuil jaunak Idazkari andreari galdetu dio Eguneko Zentroko plaza pribatuen inguruan, Zerbitzu juridikoari horren inguruko araudirik ba ote dagoen eta nola jokatu beharko litzatekeen.


Idazkariak erantzun dio ez dagoela espresuki jasota plazek kontzertatuak edo pribatuak izan behar ote dute, nahiz eta kontzertatutako plazak arautzen dituen Foru Dekretuari aipamena egiten zaion.

Maiz andreak esan dio lehentasunezkoa da zerbitzu hori behar duten Ordiziako erabiltzaileek eduki ahal izatea, beti ere plaza horiek kontzertatu bilakatzen ez badira, lehentasuna bada, eta ez du uste GOXARARI zerbitzu hori eskaintzeagatik kobratu beharko litzaiokeenik, kasu horretan, erabiltzailearengan duen kostuan eragingo bailuke.

### **Dubreuil jn.**

Dubreuil jaunak esan du aukera berdintasuna hausten dela, diru gehien duenak lortzen du plaza. Iruditzen zaio beharrari erantzuteko ez dela araudia jarraitu, ez da inolako araudirik aplikatu, eta bi kontu horiek oso larriak iruditzen zaizkio.

Kontzertatutako plaza kopurua handiagoa izan dadin lan egin beharko da.



Maiza andreak onartzen dio beharbada ez dela behar den moduan aplikatu, eta Araudia aldatu egin behar zela lehenago, baina ez du uste aukera berdintasuna hautsi denik.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.